



TRACKLIST

1. **Como lobos** (6'20")
2. **La espera** (4'22")
3. **Frío** (2'43")
4. **Déjalo** (7'05")
5. **La isla (hasta quebrar)** (4'00")
6. **Aunque pierda** (3'46")
7. **No ha sido ni es** (2'14")
8. **Témpano** (6'03")
9. **Aquellos** (3'58")
10. **Agota** (16'33")

AINARA LEGARDON

(Autoeditatua, 2017)

Ainara LeGardon: gitarrak, ahotsak, bestelako hotsak.

Xabier Erkizia: ekoizpena, ahotsak, bestelako hotsak.

Rubén Martínez: baxuak.

Héctor Bardisa: bateriak, ahotsak.

Hannot Mintegia: gitarra "Aquellos"en, ahotsak.

Ramon M. Zabalegi: artwork.

Xabier Erkizia 2017an Mik Estudioan (Beran) grabatuta, Maikel eta Luca Rullo-ren laguntzarekin. Iñigo Irazokik 2017ko irailan Atala Estudioan (Beran) eta Mamia Mastering Estudioan (Azkaraten) masterizatua.

Disko hau Ainara LeGardonen diskografian seigarren lana da bakarleri moduan. 2017ko urritik aurrera eskuragarri dago, CDa + zenbakitutako horma-irudidun edizio mugatuan.



“Estudiotik beste hizkuntza batean kantatzen atera naiz, bi bozgorailu gutxiago, berreskuratutako gitarra pare bat eta oihartzunez egindako mapa batekin. Izenburua aurkitzea baino ez zait falta. Agian ez.”

(AINARA LEGARDON)

Framus Sorella zaharra hasi da orro egiten. Xabi eta biok hasi gara irribarre egiten. “Zuk jo”, esan dit. Horrela doaz bi ordu. Azkenean, bozgorailuetako bat hondatu dut, eta axola ere ez dit egin. Inprobisazio horretatik sortu da “Déjalo” (Utz ezazu), disko hau taxutzen hasi den lehenengo abestia.

Estudiora bost anplifikadorekin heldu nintzen, lau gitarra gutxienez, eta abesti bat bera ere ez. Baina han zegoen Xabier Erkizia, tresna horiei aukera guztiak atera niezazkien erronka egiteko; ordura arte saiatzeko egokierarik aurkitu gabeko aukerok, bai denbora, leku zein horrekin esperimentatzera bultzatuko ninduen inoren laguntasun ezagatik.

Eta hauxe da disko hau gauzatu ahal izateko arrazoi nagusia, eta modu honetan eta ez bestela egin izanarena: gure esku dau den tresna guztiakin hots berriak frogatu eta esperimentatzearekin ni bezala pizten den pertsona aurkitu izanaz gain, ideia bakoitzaren, mugimendu bakoitzaren harria gehiago tenkatzera bultzatzen nauena (baita desafio egin ere). Apurtuta dagoena ez konpontzera, baizik eta duen edertasun eta bitxitasun horretaz baliatzen.

“Orain egin belusezko akopleak”, “kendu notak”, “hustu”, “errepikatu azken atala, baina bakarrik behin”, eskatu dit Xabik. Zenbat eta hari horri gehiago tiratu, are gehiago aldatu da jatorrizko ideia beste bat bilakatu arte: “Frío” (Hotz).

Diskoan agertzen den azken bertsioan ez daude ez Sorella, ez “Déjalo”ren iturburua den bals erako arpegio irregularra. Abesti horretan, beste batzuetan bezala, berori ardatzen duen jatorrizko ideia azkenean kanpoan gelditu da. Funtsean horrela eraturita dago disko hau: jatorrizko ideia bere baitan biribilkatuta harik eta mutatu eta bestelakoa bilakatu arte, eta bestelako horrek ere eboluzioari ekin dio eta zekarren esentzia ere baztertu egin da. Abestiek batzuek besteetaz hitz egiten dute. Elkar komunikatzen hasi dira euren hizkuntza propioan. Nirea alda dagidan gonbit egin didate, ni mugitzen naizen musika imaginario anitzak uzartzeko era bila dagidan.

Eta horrela doaz zortzi hilabete. Bidean beste bozgorailu bat hondatu dut, eta ez du axola ere.

Héctor Bardisa eta Rubén Martínez hiru saio ezberdinetan elkartu zaizkigu, elkarren artean zenbait hilabeteko tartearekin. Bere



bizitzan joko lukeen azken bateria izango balitz bezala mintzak kolpekatzeko eskatu dio Xabik Héctorri, horren urrutiko taupada bat besterik ez uzteko azkenean. Rubének baxuarekin lelo oso batean ahotsa albora dezagun lortu du. Hannot Mintegia azken arratsaldean batu zaigu. Oihuak eta gitarra distortzionatua grabatu ditu nire presentziak eragindako arbintasunarekin, bere oinetan eserita bainago, bere Klira zaharraren kaxa kolpekatzen nabilen artean.

Ondoren, tresna larri-zauritu eta galdutako ideien artean, Ramon M. Zabalegik 57 minutuko iraupena duen disko honetan zehar bizitako gertakarien aztarna eta arrastoak aurkitu ditu. Ezinezko eskaladun mapa batean ordenatu ditu urdin dentsitate ezberdinen bitartez proiektatuta.

Arkeologo, hondakinen kudeaketan aditu, kartografo eta zuhaitzen adaburuetako bide sorkuntzan teknikari jolasetan gabiltza. Ideia bat bera ere ez dugu moztu. Bartzuk ez dira ez entzuten eta egon ere ez daude, baina itzala ematen dute.

Estudiotik beste hizkuntza batean kantatzen atera naiz, bi bozgorailu gutxiago, berreskuratutako gitarra pare bat eta oihartzunez egindako mapa batekin. Izenburua aurkitzea baino ez zait falta. Agian ez.

Ainara LeGardon

Oharra: Disko hau egiteko ez da zirriborrobaserik soildu.

